

LOTUTAKO ERAGIKETEN GAINENKO PORTAERA-ARAUAK

A.- Ondoren zerrendatzen diren pertsonak edo erakundeak egiten dituztenak hartzen dira lotutako eragiketatzat, hurrengo atalak aipatzen dituen eragiketei dagokienez:

- a) Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak eta Erakunde Gordailuzainak euren artean egindakoak eragiketa horiek hurrenez hurren kudeatzaile edo gordailuzain gisa jarduten duten pentsio-funts bat eraginpean hartzen dutenean, eta Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak eta Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeetan administrazio- eta zuzendaritza-karguak dituztenen artean egiten direnak.
- b) Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak egindakoak eragiketa horiek "kudeatutako funts" bat eraginpean hartzen dutenean eta Erakunde Gordailuzainak egindakoak eragiketek gordailuzain gisa jarduten duten pentsio-funts bat eraginpean hartzen dutenean, talde berekoa den beste edozein erakunderekin, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definitzen denaren arabera, edo Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak edo Erakunde Gordailuzainean administrazio- eta zuzendaritza-karguak dituztenekin, hurrenez hurren.
- c) Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak "kudeatutako funts" bat eraginpean hartzen dutenean eta Erakunde Gordailuzainak gordailuzain gisa jarduten duten pentsio-funts bat eraginpean hartzen dutenean, talde berekoa den beste edozein sustatzaile edo erakunderekin, "kudeatutako funts" horretarako atxikitako pentsio-planetakoa dela edo "kudeatutako funtsaren" kontrol-batzordeko kideekin egindakoa dela edo bertan bildutako planetakoa dela.
- d) Funtzioak eskuordetu dituzten erakundeekin Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak edo Erakunde Gordailuzainak egindakoak, eragiketa horiek kudeatzaile edo gordailuzain gisa jarduten duten "kudeatutako funts" bat eraginpean hartzen dutenean.

B. - Honako hauek izango dira lotutako eragiketak:

- a) Pentsio-funts bati zerbitzuak emateagatik ordainsariak kobratzea, Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak "kudeatutako funtsari" berari ematen dizkionak izan ezik, edo Erakunde Gordailuzainak kondizio hori duen kasuetan funtsari ematen dizkionetan.
- b) Pentsio-funts batek finantzaketa lortzea edo gordailuak eratzea.
- c) Pentsio-funts batek aurreko **A Atalean** definitutako pertsonaren batek jaulkitako edo abalaturako balore edo tresnak, edo haien jaulkipenean pertsona horietakoren batek kolokatzailerik, aseguratzaile, zuzendari edo aholkulari gisa jarduten duen kasuetan.
- d) "Kudeatutako funts" baterako balore-salmenta aurreko c) letrako zirkunstantziak gertatzen direnean.

- e) Pentsio-funts batek parte hartzen duen edozein negozio, transakzio edo zerbitzu-emate, baita Pentsio Funtsa Kudeatzeko Erakundearen talde ekonomikoaren, gordailuzainaren edo atxikitako pentsio-planetako sustatzaileen edozein enpresaren edo dagozkien administrazio-kontseiluko hurrenez hurreneko kideren batena ere; pentsio-funtsetako edo atxikitako pentsio-planetako kontrol-batzordeetako edozein kiderena, edo Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak berak edo taldeko beste erakunde kudeatzaile batek kudeatutako beste pentsio-funts edo ondare bat.

Lotutako eragiketatzat hartuko dira halaber atal honetan aurreikusitako eragiketak tarteko pertsona edo erakundeen bidez burutzen direnean, Pentsio Plan eta Funtsen Erregelamenduaren 70. artikulua 9. zenbakian deskribatutakoari jarraikiz, pertsonak edo erakundeak tarteko lanak egiteari dagokionez.

C.- Honako eragiketak ez dira lotutako eragiketatzat hartuko:

- a) "Kudeatutako funts" batek Pentsio Funtsak Kudeatzeko bere Erakundearekin edo, kasuan-kasuan, bere Erakunde Gordailuzainarekin egindakoak, betiere erakunde horiek beren gain hartutako funtzioen beharrezko ondorioa badira.
- b) Inbertsio-sozietateetako akzioen salerosketa, eta inbertsio-funtsetako partizipazioen harpidetzeak eta diru-itzultzeak.
- c) Araututako merkatuetan beretan ezarritako baldintzetan egindako eragiketak, merkatu horietako prezioak eta konkurrentzia libreki osatuta betiere.

D.- Pentsio Planak Kudeatzeko Erakundeko administrazio-kontseiluak edo organo espezifiko batek –"jarraipen-organok"– erabaki beharko du eragiketak egitea, aldeztatik egiztatuta lotutako eragiketa "kudeaketa funtsaren" interes eksklusiboan eta merkatuko baldintza beretan edo hobeetan egiten dela.

Pentsio-funtsaren zorroaren kudeaketa Pentsio Funtsa Kudeatzeko Erakundeak bere Jokaerako Barne Erregelamendu propioa daukan inbertsio-erakunde batean eskuordetzen duenean, Pentsio Funtsa Kudeatzeko Erakundeko "jarraipen-organok" onartuko ditu lotutako erakundeak, III. eranskinean ("Inbertsio-erakundeei aplikagarria zaien lotutako eragiketak onartzeko organoa") barne hartutako prozedurari jarraikiz.

E.- Administrazio-kontseiluak baimendu beharko ditu negozio bolumen handia lortzen duten eragiketak honako arau hauei jarraikiz:

- a) Eragiketa argi eta garbi sartu beharko da bileraren gai-zerrendan.
- b) Baimena ematen duen administrazio-kontseiluko kideren batek uste badu lege honetan eta Jokaerako Barne Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraikiz lotutako zati dela, bozketan abstenitu egin beharko du.
- c) Bozketa sekretua izango da.

- d) Baimena ematen duen organoko kide guztien bi herenen gehiengoaren bidez hartu beharko da erabakia, kasuan-kasuan abstenitzen diren kideak kontaketa horretatik baztertuta, b) letran xedatutakoaren arabera.
- e) Behin bozketa egin eta emaitza iragarritakoan, onargarria izango da kideek hartutako erabakiarekiko erreserbak edo desadostasunak aktan jasotzea.

Kontrol-batzordeari jakinarazi behar zaio lotutako eragiketaren baimena.

Eragiketa batek negozio bolumen garrantzitsua lortzen duela ulertuko da Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak horretarako ezarritako baldintzak gertatzen direnean.

F.- Jarraipen-organoan eskuordetutako baimena duten eragiketak batzorde horrek berak baimendu beharko ditu aldez aurretik.

Horri begira, idazki bidez eta aldez aurretik eskatu beharko da lotutako eragiketaren dagokion baimena, eragiketaren identifikazio-datuak adieraziz, eta, bereziki, inplikaturako erakundeak, eragiketa mota eta eragiketaren baldintzak. Jarraipen-organoak emandako informazioa zabaldu behar dela uste badu, behar dituen datu guztiak eskatu ahalko ditu.

Jarraipen-organoak lotutako eragiketa bat baimendu dezan beharrezkoa izango da eragiketa horrek aurreko D letran adierazitako bi eskakizunak bildu ditzala; bi eskakizun horiek bilduta ere, jarraipen-organoak eragiketa eginez gero balore-merkatuko jokaera-arauak urratuko lirakeela uste badu, abstenitu egingo da baimentzeari dagokionez. Idazki bidez eman beharko da baimena, eta lortzeko aurkeztutako dokumentazioarekin batera artxibatuko da.

Dena den, garrantzi gutxi dutelako edo errepikakorrak direlako Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeko administrazio-kontseiluak jarraipen-organoaren aldez aurreko baimena beharrezkoa ez dela erabakitzen den eragiketarako, organo horrek ondoren eta prozedura-eskuliburuan ezarritako aldizkakotasunarekin egingo ditu dagozkion kontrolak.

G.- Lotutako eragiketa guztien ondorengo kontrola egingo da, baimendutakoari jarraikiz egin zirela egiaztatzeko.

H.- Jarraipen-organoak hiru hilean behin bidali beharko dio erakunde kudeatzailearen administrazio-kontseiluari txosten bat aldez aurretik baimendu dituen lotutako eragiketekin eta ondoren egindako kontrolekin. Hiruhileko batean ez bada lotutako eragiketarik egiten, ez da beharrezkoa izango txosten hori bidaltzea.

I.- Pentsio Funtsak Kudeatzeko Erakundeak kontratazioaren unean partaideak harpidetutako atxikimendu-buletinean, eta partaide eta onuradunei eman beharreko hiru hilean behingo informazioan berri eman beharko du –partaide eta onuradun horiek pentsio-planaren edozein modalitatetan daudela ere– interes-gatazkak saihesteko prozeduren inguruan eta lotutako eragiketen inguruan.